ESP. KODEA. CÓD. EXP.	**2021BOCU0016**

ESPEDIENTEA EXPEDIENTE	
TITULARRA TITULAR	BEASAINGO UDALA KULTURA SAILA
TOKIA LUGAR	

PLAZAPE TABERNAREN USTIAKETA ETA PLAZAREN DINAMINAZIOA. BALDINTZA PLEGU TEKNIKOA	**EXPLOTACIÓN DEL BAR PLAZAPE Y DINAMIZACIÓN DE LA PLAZA. PLIEGO TÉCNICO**
1.- XEDEA Beasaingo Udalaren jabetzakoa den Plazape tabernaren lokalaren ustiaketa, alboko komun eta dutxa publikoena barne eta plazaren (plaza azpia nahiz Zubimuzu plaza) eta azokaren dinamizazioa.	**1.-OBJETO** La explotación del bar Plazape, local propiedad del Ayuntamiento de Beasain, junto con los aseos y ducha públicas adyacentes, y la dinamización de la plaza (plaza azpia y Zubimuzu) y del mercado.
2.- KONTRATUAREN EDUKIA	**2.- CONTENIDO DEL CONTRATO**
2.1.-ADJUDIKAZIO-HARTZAILEAREN ESKUBIDEAK LOKALA: Udalak esleipendunaren eskura jarriko du taberna-kafetegirako lokala, Udaletxeko plazaren beheko aldean dagoena. Lokal horrek, alboan komun publikoak eta dutxa bat ere badu. TERRAZA: Horrezaz gain esleipendunak, bai plaza azpian eta baira ere kale Nagusira ematen duen lokalaren fatxadan, terraza (mahaiak eta aulkiak) jartzeko eskubidea izango du, horrela eskatuz gero. ETEKINAK.	**2.1.- DERECHOS DE LA EMPRESA ADJUDICATARIA** LOCAL: El Ayuntamiento pondrá a disposición de la adjudicataria el local destinado a bar-cafetería ubicado en la parte baja de la plaza del Ayuntamiento. Adyacentes a este local, se encuentran tanto los aseos públicos como una ducha. TERRAZA: Además, la adjudicataria, tendrá derecho a instalar terraza (mesas y sillas) tanto bajo la plaza como en la fachada del local que da a la calle Mayor, si así lo solicitara. BENEFICIOS:

Jarduera ustiatzeagatik lortutako etekinak esleipendunarentzat izango dira.	Los beneficios obtenidos por la explotación de la actividad serán para la adjudicataria.
2.2.-ADJUDIKAZIO-HARTZAILEAREN BETEBEHARRAK:	**2.2.-OBLIGACIONES DE LA ADJUDICATARIA:**
2.2.1.-Taberna ustiatzea eta komun eta dutxa publikoen mantenua LOKALAREKIKO • Taberna jarduera ustiatzea, gogaikarri, osasungaitza eta arriskutsua ez diren baldintzetan. • Esleipendunak baldintza-agiri honetako I. eranskineko jarduera-lizentziaren neurri zuzentzaileak bete beharko ditu, eta Udalak gerora ezar diezazkiokeen neurri zuzentzaileak ere bete beharko ditu. • II Taldeko taberna izanda, jarduera irekitzeko eta ixteko ordutegia errespetatzea, araudiaren arabera. • Kontserbazio- eta garbitasun-egoera egokian edukitzea lokala eta altzariak: Mahaiak, aulkiak, barrako eta sukaldeko altzariak, eta eragina izan dezakeen beste altzari bat. • Lokalaren eta altzarien narriadurez eta kalteez arduratzea, nahiz eta hirugarren batek kalte horiek sortu. • Ur-hornidura, saneamendua, energia elektrikoa, telefonia eta interneta kontratatzea eta ordaintzea. • Jarduera ustiatzeko egin beharreko hornidurak nahiz egin beharreko hobekuntzak, esleipendunaren kontura izango dira.	**2.2.1.-Explotación del bar y mantenimiento de los aseos y duchas públicas** CON RESPECTO AL LOCAL • Explotación de la actividad de bar en condiciones no molestas, insalubres ni peligrosas. • La adjudicataria deberá cumplir las medidas correctoras de la licencia de actividad que acompañan al presente pliego como Anexo nº I. También deberá cumplir las medidas correctoras que a posteriori le pudieran ser impuestas por el Ayuntamiento. • Siendo un establecimiento del grupo II, debe respetar el horario de apertura y cierre de la actividad de acuerdo con la normativa. • Mantener en buen estado de conservación y limpieza el local y el mobiliario: mesas, sillas, mobiliario de barra y cocina y otro mobiliario que pueda afectar. • Responsabilizarse de los deterioros y daños en el local y en su mobiliario, con independencia de quien los cause. • Contratación y pago del suministro de agua, saneamiento, energía eléctrica, telefonía e internet. • Los suministros y mejoras necesarias para la explotación de la actividad serán a cuenta de la adjudicataria.

• Esleipendunak ezin izango du apustu makinak jarri. Aparatu musikalak, *vending edo joko-makinak* jartzeko, aurrez, Udalaren baimena lortu beharko da. Erabaki hori Udalarentzat diskrezionala izango da. • Taberna barruan erretzen ez uztea. Adjudikazio-hartzailearen ardura izango da 28/2005 Legearen betearaztea. • Udal kultur programazioa herritarren artean hedatzeko eta sustatzeko, esleipendunak tabernaren fatxadan gune/txoko bereizi bat izango du, Beasaingo udaleko kultura arloak emandako informazioa jartzeko. • Esleipendunak ezin izango du inolako obrarik egin lokalean, komunetan edo dutxan, ezta tabernaren ustiapena garatzeko baldintzak aldatu ere, Udalaren berariazko eta idatzizko baimenik gabe. • Taberna ustiatzeko jarduera garatzeko kontratistak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu: - Baimendutako enpresak egindako 75dBko soinu ekipoaren ainguraketa ziurtagiria. - Suteen aurka babesteko instalazioen mantenu ziurtagiria. - Osasun Sailean buruturiko jardueraren aurretiazko komunikazioa.	• La adjudicataria no podrá instalar máquinas auxiliares de apuestas. La instalación de aparatos musicales, vending o máquinas de juego requerirá la previa autorización del Ayuntamiento. Esta decisión será discrecional para el Ayuntamiento. • No permitir fumar en el interior del bar. Corresponderá al adjudicatario la ejecución de la Ley 28/2005. • Para la difusión y promoción de la programación cultural municipal entre la ciudadanía, la adjudicataria dispondrá en la fachada del bar de un espacio/rincón diferenciado en el que colocar la información facilitada por el área de cultura del Ayuntamiento de Beasain. • La adjudicataria no podrá realizar obras de ninguna clase en el local ni en los aseos ni en la ducha, ni modificar las condiciones para el desarrollo de la explotación del bar, sin el permiso expreso y escrito del Ayuntamiento. • La adjudicataria deberá presentar la siguiente documentación para el desarrollo de la actividad de explotación del bar: - Certificado de anclaje del equipo de sonido 75dB emitido por la empresa autorizada. - Certificado de mantenimiento de instalaciones de protección contra incendios. - Comunicación previa de la actividad desarrollada en el Departamento de Salud.
KOMUN PUBLIKOEKIKO ETA DUTXAREKIKO • Komun publikoen eta dutxaren garbiketa, mantenua eta ura eta energiaren kontsumoa esleipendunaren kontura izango da.	CON RESPECTO LOS ASEOS PÚBLICOS Y DUCHA • La limpieza, mantenimiento y consumo de agua y energía de los aseos públicos y ducha correrá a cargo de la adjudicataria.

• Komunetako eta dutxako higiene-produktuak esleipendunaren kontura izango dira.
 	
• Komun publikoei dagokien garbiketa, gutxienez, egunean bi aldiz egingo da: eguerdian eta ixterakoan.
 	
• Dutxa, aldiz, erabiltzen den bakoitzean garbituko da.
 	
• Komun publikoak irekita egongo dira urteko 365 egunetan eta gutxieneko ordutegia ondorengoa izango da:
 	
  ○ Astelehenetik ostegunera bitarte: 7:00etatik 22:00etara.
  ○ Ostiralean, jai egun bezperetan eta jai egunetan: 7:00etatik 24:00etara.
  ○ Loinatz jaietan: 8:00etatik 02:00etara.
 	
• Dutxa, ez da publikoari irekita egongo. Udalak aginduko dio esleipendunari irekitzeko, Udalak erabilera baimentzen duen bakoitzean.
	• Correrán a cuenta de la adjudicataria los productos de higiene en los aseos y en la ducha.
	
	• La limpieza correspondiente a los aseos públicos se realizará, al menos, dos veces al día: al mediodía y al cierre.
	
	• La ducha se limpiará cada vez que se utilice.
	
	• Los aseos públicos permanecerán abiertos los 365 días del año y el horario mínimo será el siguiente:
	
	  ○ De lunes a jueves: de 7:00 a 22:00horas.
	  ○ Viernes, vísperas de festivo y festivos: de 7:00 a 24:00horas.
	  ○ Fiestas de Loinatz: de 8:00 a 02:00horas.
	
	• La ducha no estará abierta al público. El Ayuntamiento ordenará al adjudicatario su apertura siempre que el Ayuntamiento autorice su uso.

TERRAZAREKIKO • Terraza jartzeko, esleipendunak dagokion eskaera egingo dio Udalari eta azken honen baimenean adieraziko dira zein baldintzetan jarri daitezkeen mahaiak eta zein izango den kopurua. Baimen horren arabera Udalak likidazioa igorriko du esleipendunak jabari publikoaren okupazioa ordaindu dezan. • Terrazako aulkiak eta mahaiak egunero jasoko dira. • Beasaingo Udalak, berak, antolatzen dituen emanaldietan, beharrezkoa balitz, Plazape tabernako terrazaren aforoa murriztuta ikusi ahal izango. Udalak, aldez aurretik horren berri	CON RESPECTO A LA TERRAZA • Para la instalación de la terraza, la adjudicataria realizará la correspondiente solicitud al Ayuntamiento, y en la autorización se indicarán las condiciones en que se pueden colocar las mesas y el número de ellas. En virtud de esa autorización, el Ayuntamiento remitirá la liquidación para que la adjudicataria abone la cantidad por ocupación del dominio público. • Las sillas y mesas de la terraza se recogerán diariamente. • En las actuaciones que organice el Ayuntamiento de Beasain, si fuera necesario, se podrá ver reducido el aforo de la terraza del bar Plazape. El Ayuntamiento informará de ello previamente.

emango du.	
2.2.2.-Dinamizazio kulturala eta azoken inguruko dinamizazioa Plazape taberna herriko plaza azpian kokatzen da eta plaza horrek hiru motatako jarduerak hartzen ditu bere baitan nagusiki: azoka, kultur ikuskizunak eta herriko elkarteek antolatzen dituzten jarduerak. Plazape tabernaren esleipendunak urte hasieran urteko programa aurkeztuko eta adostuko du udal arduradunekin egingo duen koordinazio bileran. Programak, gutxienez, jasoko ditu: jarduera edo ekitaldi mota, aurreikusitako data, hartzailea eta aurrekontua. Hau izango da urteko programaren edukia eta gauzatu behar duen gutxienekoa: 1.- Kultur dinamizazioari dagokionez, kulturaren sustapena egin beharko du ekintza/emanaldi bat antolatuz (kontzertuak, antzerkiak, dantza, pailazoak…), gutxienez, urteko hiru garai hauetan: Aste Santuan/Pazko Astean, uztailean/abuztuan eta Gabonetan. 2.- Hilaren lehenengo larunbateko azokaren dinamizazioari dagokionez: 2.1.- Zozketatzen diren saski bakoitzerako (2) ekarpen egin beharko du (pintxoa, kafea, …). 2.2.- Azokako dinamizazio ekintzak antolatuko ditu, gutxienez urteko lau azokatan (tailer-hitzaldi didaktikoak, erakusketak, dastaketak …). Ekintza horiek azokan saltzen diren produktuekin lotura izan beharko dute. Dastaketak edo antzekoak ez dira alkoholarekin lotutakoak izango. 3.- Antolatutako ekintzak plaza azpian	**2.2.2.-Dinamización cultural y dinamización del mercado.** El bar Plazape se ubica bajo la plaza del pueblo y esta plaza comprende principalmente tres tipos de actividades: el mercado, los espectáculos culturales y las actividades que organizan las asociaciones locales. La adjudicataria del bar Plazape presentará y consensuará a principios de año el programa anual en la reunión de coordinación con las personas responsables del Ayuntamiento. El programa reflejará como mínimo, el tipo de actividad o evento, la fecha prevista, el público al que va dirigido y su presupuesto. El contenido mínimo del programa anual que debe llevar a cabo será el siguiente: 1.- En cuanto a la dinamización cultural, deberá promover la cultura organizando al menos una actividad/espectáculo (conciertos, teatros, baile, payasos…) en cada uno de los siguientes periodos del año: Semana Santa/Semana de Pascua, mes de julio/agosto y Navidad. 2.- En cuanto a la dinamización del mercado del primer sábado del mes: 2.1.- Deberá realizar una aportación para cada una de las cestas (2) que se sorteen (pincho, café,…) 2.2.- Organizar actividades de dinamización del mercado al menos cuatro veces al año (talleres didácticos, exposiciones, catas…). Esas actividades tendrán relación con los productos que se veden en el mercado. Las catas o similares no estarán vinculadas al alcohol. 3.- Las actividades programadas se

edota Zubimuzu plazan egingo dira eta publiko ororentzat izango dira. 4.- Dagokion segurtasun neurriak ezarriko dira jarduerak aurrera eramateko garaian eta baita ere, muntaketa eta desmuntaketa egiten denean. 5.- Plazape tabernako esleipendunak antolatu behar dituen ekintzak edo ikuskizunak doakoak izango dira. Ezin izango da sarrerarik kobratu eta ezta ere beste edozein baldintza jarri horiek gozatzeko. 6.- Hizkuntzari dagokionean euskararen udal ordenantzak dioena betetzea, hau da, 18 urtetik beherakoentzat antolatzen diren ekintzak euskara hutsez izatea eta publiko orokorrarentzako direnetan %70 euskaraz izatea. 7.- Ahozkoari dagokionez, lehen hitza euskaraz egingo da. 8.- Jardueren, tailerren, jarduketen etab. programatzerakoan, esleipendunak genero-oreka bilatuko du jarduera horiek egiten dituzten pertsonen artean.	desarrollarán bajo la plaza o en la plaza Zubimuzu y serán para todo tipo de público. 4.- Se establecerán las medidas de seguridad correspondientes durante el desarrollo de las actividades y durante el montaje y desmontaje. 5.- Las actividades o espectáculos que tenga que organizar la adjudicataria del bar Plazape serán gratuitos. No se podrán cobrar entradas ni poner ninguna otra condición para su disfrute. 6.- En cuanto al idioma, se cumplirá lo dispuesto en las ordenanzas municipales, esto es, al menos el 70% de lo que se programe será en euskera. Lo que se programe para los menores de 18 años será íntegramente en euskera. 7.- En lo relativo al lenguaje oral, la primera palabra será en euskara. 8.- En la programación de las actividades, talleres, actuaciones, etc., la adjudicataria buscará el equilibrio de género entre las personas que lleven a cabo las mismas.
2.2.3. Beste betebehar batzuk • Harreman administratiboak. Udalaren eta adjudikazio-hartzailearen arteko harreman administratiboak (txostenak, bilerak, kontsultak, etab.) euskaraz izango dira. • Zerbitzuaren erabiltzaileari harrera euskaraz egingo zaio. Erabiltzaileak aukeratutako hizkuntzan jarraituko da. • Jendaurrean jarriko diren errotuluak, oharrak edo tabernako bestelako informazioak euskaraz edo, behar balitz, ele bietan (euskaraz eta gaztelaniaz) jarriko dira. Eta ele bietan jartzekotan, euskarari lehentasuna	**2.2.3. Otras obligaciones** • Relaciones administrativas. Las relaciones administrativas (informes, reuniones, consultas, etc) entre el Ayuntamiento y la adjudicataria serán en euskera. • La atención a las personas usuarias se hará inicialmente en euskera. Se continuará en la lengua elegida por la persona usuaria. • Los rótulos, avisos u otras informaciones del bar que se expongan al público se redactarán en euskera o, en su caso, en bilingüe (euskera y castellano). Y en el caso de ponerse en las dos lenguas, se

emango zaio, bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa erdarazkoaren gainean) eta bai neurriaren aldetik ere. Bestalde, euskarazko testuak zuzen idatziak daudela egiaztatzeko, Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntza eska daiteke.	dará prioridad al euskera, tanto desde el punto de vista de su ubicación (la del euskera sobre la del castellano) como desde el punto de vista de su tamaño. Por otro lado, para comprobar que los textos en euskera están correctamente escritos, se puede solicitar la colaboración del Servicio Municipal de Euskera.
• Hizkuntza ez-sexista erabili beharko du enpresa esleipendunak bere agiri guztietan, oharretan, irudietan, edota kontratua gauzatzeagatik sortzen den material orotan; eta emakumea baztertzen duen irudi oro eta estereotipo sexista oro saihestu beharko du; horrez gain, berdintasun-balioekin, presentzia orekatuarekin, aniztasunarekin, erantzunkidetasunarekin eta genero- eta identitate-pluraltasunarekin lotutako irudia sustatuko du.	• La adjudicataria deberá utilizar un lenguaje no sexista en todos sus documentos, notas, imágenes o cualquier material que se genere como consecuencia de la ejecución del contrato, evitando cualquier imagen discriminatoria de la mujer y cualquier estereotipo sexista, y promoverá una imagen relacionada con los valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad y pluralidad de género e identidad.
• Hondakinen kudeaketa selektibo eta arduratsua egin beharko du adjudikazio-hartzaileak.	• La adjudicataria deberá realizar una gestión selectiva y responsable de los residuos.
• Bezeroei uneoro tratu adeitsua, zuzena eta ez-diskriminatzailea emango die.	• Dará a los clientes un trato cordial, correcto y no discriminatorio en todo momento.
• Zerbitzuari edo erabiltzaileei eragin diezaiekeen edozein gorabehera edo arazo Udalari jakinaraziko dio.	• Comunicará al Ayuntamiento cualquier incidencia o anomalía que pueda afectar al servicio o a los usuarios.
• Lehiaketaren xedea den ustiapenari eta dinamizazioari lotutako jardueren eta bitarteko materialen gaineko zerga, tasa eta tributu guztiak esleipendunaren kontu izango dira. Kontratu honen ondorioz burutu behar duen jarduerekin lotuta, indarrean dauden betebehar legalak bete beharko ditu.	• Todos los impuestos, tasas y tributos sobre las actividades y medios materiales vinculados a la explotación y dinamización objeto del concurso serán a cargo de la adjudicataria. En relación con las actividades a realizar como consecuencia del presente contrato, deberá cumplir las obligaciones legales vigentes.
• Udalari urteko kanona ordainduko du.	• Pagará el canon anual al Ayuntamiento.
• Zerbitzua garatzeko komenigarritzat jotzen dituen langileak kontratatzeaz arduratuko da, laneko eta Gizarte Segurantzako betebeharrei buruz indarrean dagoen araudia betez. Ez	• Se responsabilizará de la contratación del personal que estime conveniente para el desarrollo del servicio, en cumplimiento de la normativa vigente sobre obligaciones laborales y de Seguridad Social. Ni la adjudicataria ni el

berak ez bere zerbitzupeko langileek ez dute inolako lan-harremanik izango Udalarekin • Lana babesteko legezko xedapenak eta Prebisio eta Gizarte Segurantzakoak betetzeko obligazioa izango du esleipendunak. Udalak ez du erantzukizunik izango arau horiek betetzen ez badira, edota lan arloko gainerako arau-hausteren bat egingo balu ere. • Udalak aukera izango du kontratistari baldintza horiek betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa eskatzeko eta kontratistak ezin izango dio dokumentazio hori emateari uko egin. Udala ez da, inola ere, enpresaburuaren arau-hausteen erantzule izango. • Emakidaren epea amaitzean, lokala Udalaren eskura jarriko da, bere ondasun eta osagarri guztiekin, eta toki-erakundeak ez du lokalaren balio erantsiagatik kalte-ordainik ordaindu beharko.	personal a su servicio mantendrán relación laboral alguna con el Ayuntamiento • La adjudicataria estará obligada al cumplimiento de las disposiciones legales de protección del trabajo y de previsión y seguridad social. El Ayuntamiento no será responsable del incumplimiento de estas normas o de cualquier otra infracción laboral. • El Ayuntamiento podrá requerir al contratista la documentación acreditativa del cumplimiento de estos requisitos y éste no podrá negarse a entregarla. El Ayuntamiento no es, en ningún caso, responsable de las infracciones que cometa la adjudicataria. • Finalizado el plazo de concesión, el local se pondrá a disposición del Ayuntamiento con todos sus bienes y accesorios, sin que la entidad local deba abonar indemnización alguna por el valor añadido del local.
Plegu hau onartua izan da, 2021eko uztailaren 1ean egindako Osoko Bilkuran.	Aprobado el presente pliego en la sesión plenaria de 1 de julio de 2021.